



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK

alkate-udal burua

AITOR AGIRRE ALKORTA

zinegotziak

BEGOÑA BALERDI URDAMPILLETA

OIER MINTEGI ZEBERIO

LOURDES SARASOLA ETXEBERRIA

JUAN JOSE GOGORZA BALERDI

FRANCISCA ZUBELDIA LULUAGA

JOSEFINA ALTUNA AZURMENDI

IDAZKARIA

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2011ko irailaren 29a, arratsaldeko zazpitan, eta Udaleko alkate Aitor Agirre Alkorta presidente izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

GAIAK

LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

- 1.- 447/2011 Dekretua. Alkatearen oporren ordezkapena
- 2.- 449/2011 Dekretua. Euskara ikastaroetako laguntza. M^a Ascensión Alonso Sanchez.
- 3.- 457/2011 Dekretua. Uraren Zergaren errolda onartzea. – 2. hiruhilabetea.
- 4.- 458/2011 Dekretua. Zaborraren Zergaren errolda onartzea – 2. hiruhilabetea.
- 5.- 459/2011 Dekretua. Uztaileko Nominen onarpenak.
- 6.- 460/2011 Dekretua. Fakturen onarpenak.
- 7.- 473/2011 Dekretua. Naturgas Energia – 2. hiruhilabeteko aprobetxamendu tasaren likidazioa.
- 8.- 474/2011 Dekretua. Endesa Energia – 2. hiruhilabeteko aprobetxamendu tasaren likidazioa.
- 9.- 477-478-479/2011 Dekretuak. Gizarte Laguntzen onarpena.
- 10.- 515/2011 Dekretua. Abuztuko Nominen onarpena.
- 11.- 516/2011 Dekretua. Fakturen onarpenak.
- 12.- 532/2011 Dekretua. Aritz Orruño Erauskin – Arkitektoaren kontratazioa.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

- 13.- 538/2011 Dekretua. Jose Antonio Zeberio Artola – Etxerri baserrian obratako baimena.
- 14.- 540/2011 Dekretua. Gipuzkoako Donostia Kutxa – obratako baimena.
- 15.- 542/2011 Dekretua. Iraileko Fakturen onarpena.
- 16.- 543/2011 Dekretua. Iraileko Nominen onarpena.
- 17.- 557/2011 Dekretua. Festetako laguntza onarpena.
- 18.- 558/2011 Dekretua. Esait-i laguntza onarpena.
- 19.- 530/2011 Dekretua. Gaurko bilerako deia.

3.- 1/2011 KREDITU ALDAKETA

“KREDITU GEHIAGARRIEN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU ALDAKETARAKO 1 zk.ko ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA.

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 foru arauaren 34. artikulua ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Guzti hori kontutan hartuta, honako hau

PROPOSATZEN DA:

- 1.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko laburpenaren arabera:

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egunoak	Aldaketak	Behin-betikoak
131.451.01.01	Begiraleak	1.500,00	500,00	2.000,00
160.313.09.01	G.S. Gizarte Langilea	4.324,92	2.124,58	6.449,50
160.451.01.01	G.S. Begiraleak	496,50	50,00	546,50
162.121.01.05	Langileen Bizi Asegurua	1.700,00	118,45	1.818,45
210.441.01.01	Ur Tuberi, Depositu e.a.	1.000,00	600,00	1.600,00
210.449.01.01	Bestelako Mantenimenduak	14.756,82	10.000,00	24.756,82
211.439.02.01	Udaletxeko Igogailuaren Mantenimendua	2.942,14	114,84	3.056,98
211.439.03.01	Udaletxeko Kalefazioaren Mantenimendua	750,00	49,76	799,76



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

211.439.05.01	Plaza Soroko Igogailuaren Mantenimendua	2.901,80	24,80	2.926,60
211.449.01.01	Bestelako Mantenimenduak	1.200,00	600,00	1.800,00
220.121.01.01	Bulegorako Materiala	1.500,00	1.000,00	2.500,00
220.121.01.02	Harpidetzak e.a.	1.000,00	300,00	1.300,00
220.121.01.03	Informatikako materiala	1.000,00	500,00	1.500,00
221.422.01.01	Eskoletako Argi Indarra	1.000,00	1.500,00	2.500,00
221.422.02.01	Eskolako Jangelako Argi Indarra	400,00	600,00	1.000,00
221.422.03.01	Eskolako Plaza Soroko Argi Indarra	1.500,00	500,00	2.000,00
221.452.04.01	Frontoiako Argi Indarra	1.200,00	300,00	1.500,00
221.441.01.02	Gipuzkoako Ur Kontsortzioa	28.000,00	3.500,00	31.500,00
224.121.01.01	Udal Etxeen Aseguruak	4.000,00	112,64	4.112,64
226.121.01.03	Publizitatea, Propaganda e.a.	1.000,00	1.000,00	2.000,00
226.121.01.99	Bestelako Gastu Orokorrak	4.000,00	1.000,00	5.000,00
227.121.01.01	Garbitasun Enpresa	20.000,00	3.200,00	23.200,00
227.432.01.01	Proiektuak – Mapa Toponimikoa	3.000,00	10.148,00	13.148,00
421.711.02.01	Tolosaldeko Makinari Zerbitzua	6.000,00	500,00	6.500,00
430.313.02.01	Gizarte Larrialdietarako Laguntza	4.508,00	2.000,00	6.508,00
430.313.03.01	Famili Eskuhartzea	4.662,31	1.000,00	5.662,31
430.454.01.01	Festetako Batzordea	1.000,00	6.500,00	7.500,00
625.121.01.02	Inpresora	-----	330,40	330,40
629.449.01.01	Ostaturako Kafe Makina	-----	2.335,00	2.335,00
GUZTIRA		115.342,49	50.508,47	165.850,96

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egunoak	Aldaketak	Behin-betikoak
410.000.00.02	E.J. Mapa Toponimikoa	-----	10.000,00	10.000,00
870.000.00.01	Diruzaintzako Gerakina	-----	40.508,47	40.508,47
GUZTIRA		-----	50.508,47	50.508,47

2.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

4.- HAINBAT GAIEN INFORMAZIOA

A-2 ZERRATEGIA – ESKOLA BERRIAREN EGOERA

Aitor Agirre Alkorta, Alkateak, hitza harturik, A-2 Zerrategia – Eskola Berriaren egoerari buruzko informazioa ematen du:



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

2006 urteko ekainean, Hitzarmen Urbanistikoa sinatu zen, A-2 Zerrategiko lurren jabeekin.

2007ko otsailean, Lizartzako Arau Subsidiarioei behin betiko onarpena zioten Gipuzkoako Foru Aldundiak.

2007ko martxoan, A-2 Zerrategiko, Eskola eremuak harrapatzen zizkieten lurren jabeekin, hitzarmena sinatu zen, lurren lagapenerako.

2009ko urrian, Udalak eta Lurra Promotoreak, Hitzarmen Urbanistikoa sinatu zuten, A-2 Zerrategiaren garapenerako.

2010eko urtarrilean, A-2 Zerrategiari zegokion, PAU aurkeztu zuen Lurra Promotoreak. Lehen onarpena eman zitzaion, baina bertan behera gelditu zen.

URA AGENTZIA. Arrateko Zubia eta ibaiaren ubideratze proiektuak eginak ditu. Zubia beraien kargu izango da, baina ubideratzea, A-2 Zerrategia eremuari dagokio.

LURRA PROMOTOREA. Beraiekin burututako azken bileran agertzen dute, aurreko promozioan ez dituztela etxeak saldu eta proposamen berri bat aurkeztu dute.

HEZKUNTZA SAILA. Eskolaren eraikina egiteko prestutasun osoa agertzen dute. Herriak, lurak urbanizatuta jarri behar ditu.

UDALA. Udalaren lehentasun bakarra eskola berria eraikitzea da. Egiteko, aukerak:

1.- Zerrategi aldean

PAU berri bat: Eskola egiteko aukera emateko etxebizitzan zain egon gabe.

Urbanizazio Proiektua: Arau subsidiarioetane zartzen duen moduan eremu osoarena egin beharko litzateke.

Ingurumenekoen oniritzia jaso. Gogoratu gaur egun LIC eremu bat dela eta ZEC eremua izateko tramitetan daudela.

Terrenoen eskuragarritasuna



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Finantziazioa: Hitzarmen bat sinatu beharko litzateke URA, Hezkuntza eta Udalaren artean. Udalak ez dauka dirurik. Dena kanpokoek ordaindu behar dute. Urbanizazio kostu bezala, 300.000,00 € inguru.

Epeak: Ingurumen tramiteak 1 urte, 2013 urtean eskola egiten hasi ??

Alde onak:

- Eskolaren eraikina egiteko leku nahikoa izango luke.
- Eskolaren ingurua itxia izango luke
- Eskola zaharra kultur-etxe, edo beste zerbitzuetarako erabiltzeko aukera.

Alde txarrak:

- Tramite asko egin behar dira.
- Epea luzatu daiteke.
- Gure herri ereduaren aurka doa: etxebizitza berriak egitea etxe hutsen erabilera bultzatu beharrean. Etxe berri kopuru handia.
- Ingurumenari kalteak.

2.- Alondegian

Arauen aldaketa? Izatekotan txikia.

Hezkuntzarekin hitz egin, bertan egin daitekeen aztertzeke.

Alde onak:

- Epe motza.
- Alondegia soluzio bat ematen zaio.
- Eskola zaharra beste zereginetarako erabili daiteke.

Alde txarrak:

- Errepide hertzean dago. Arriskua. Soluzio bat beharko luke (zubi, baden ...)
- Alondegia beste erabilpenetarako (kultur etxe, ...) aukera galdu.

3.- Eskola zaharra dagoen tokia

Gaur egungo arauen aldaketa txiki bat.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Hezkuntzarekin hitz egin beharn egin daitekeen aztertzeko.

Alde onak:

- .- Epe motza.
- .- Kokapena.

Alde txarrak:

- .- Leku gutxi. Gaur egungo eskola baten beharrak ez lituzte beteko (?)
- .- Eraikuntza lanak dirauten bitartean Haurrak beste leku bat beharko dute.

GIPUZKOAKO URAK – UR ZERBITZUAREN KUDEAKETA

Aurreko Udalak erabaki zuen, Ur Zerbitzuaren Kudeaketa, Gipuzkoako Urak-en esku uztea.

Udal honek, ez du argi ikusten, hori horrela izan behar dunik.

Beraz, gaia sakonki aztertu bitartean, aurreko erabakia bertan behera uzten da.

SANEAMENDUA

Hainbat Teknikari azaldu ziren, herriko saneamendua aztertzeraz.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, saneamendua eta depuradora jartzeko proiektua aurkeztu du.

Proiektua aztertu ondoren, Udalak alegazioak jartzen ditu.

Foru Aldundiak, ez ditu alegazioak onartzen eta aurrera jarraitzen du. Obrak konkurtsora ateratzen ditu.

Hainbat kontratista pasatzen dira, eta Joakin-ekin, egin behar diren lanak ikusten dituzte. Akats asko daudela atzematen dute. (Udalak alegazioetan esan bezala).

Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariek bisitaldia egiten da eta Udalak ikusten dituen akatsak erakusten zaizkie.

Ezer ez dagoela egiterik eta falta diren auzak, Udalak egin beharko dituela.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

5.- BESTELAKOAK

Ez dago bestelakorik.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zortzietan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK
Izpta: Aitor Agirre Alkorta

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia